

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

55 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Burgesia europarrak Syriza zapaldu eta Grezia hondoratu nahi ditu

Beharrezkoa da langile greziarrek boterea hartzea!
Bankaren nazionalizazioa langileen kontrolpean,
oligarkia ekonomikoaren desjabetzea,
masen mobilizazioa irabazi arte!

2. Editoriala: M24ko hauteskunde emaitzen ikasgaiak Euskal Herrian • 4. CCOO eta UGTko zuzendaritzen traizio berria bake soziala inposatzen saiatzeko • 6. TTIP: multinazionalak babesteko eta langile klasearen eskubideak murrizteko ituna • 8. Balkanak: herri iraultza Mazedonian • 10. Federico Engels Fundazioaren argitalpen berria: Leon Trotskyren 'La guerra y la Internacional' • 12. Burgesia europarrak Syriza zapaldu eta Grezia hondoratu nahi ditu • 16. PPren eta Estatu aparatuen erantzuna mobilizazio sozialaren gorakadaren aurrean •

M24ko hauteskunde emaitzen ikasgaiak Euskal Herrian

Langile klasea eta gazteria antolatu sozialismoaren alde borrokatzeko!!

Maiatzaren 24ko hauteskundeek lurrikara politiko handia suposatu zuten Estatu espainiarrean.

Sozialdemokraziaren ezkerrean dauden hautagaitzek emaitza bikainak lortu zituzten Catalunyan, Galizian eta Estatuan. Egia da EHBilduk behera egin zuela, baina Podemos-Ahal Duguren botoak koalizioarekin batuz gero, nabarmena izan zen Euskal Herrian ere ezkererako bira.

Azken urteetan mobilizazio garrantzitsuak ikusi ditugu Euskal Herrian, Catalunyan, Galizian eta Estatuan. Greba orokorrak, langile borroak, hezkuntza publikoaren aldeko ikasle grebak, eskubide demokratiko nazionalen aldeko manifestazioak, etxe kaleratzeen aurkako mugimendua, marea sozialak, M15 mugimendua... Kaleko indar hau guztia hauteskunde mailan islatu da orain. Milioika gazte eta langilek beren indarretan konfiantza izatea lortu dute, eta Estatu espainiarreko hurrengo hauteskunde orokorretan gobernu aldaketa garrantzitsua eskuartzeko aukera ikusten dute.

Estatuko hiri handietako herri hautagaitza bateratuek 1,3 milioi boto atera zituzten, eta PSOEn ezkerrean dauden indarrek denera 4 milioi boto lortu zituzten. Hego Euskal Herrian, berriz, PSE-PSNren ezkerrean dauden ordezkariak ia 550.000

boto lortu zituzten, EHBildu, Podemos-Ahal Dugu, Irabazi eta Izquierda-Ezkerrak foru hauteskundeetan eskuratutako emaitzak batuta. Argi geratzen da Euskal Herrian emandako ezkererako bira.

Langabetuen asanbladek antolatutako protestak, fabriketako lan gatazkak, osakidetzako langileen ekinga eta grebak, ikasle mobilizazioak, errepresioaren eta eskubide demokratikoen ukazioaren aurkako manifestazioak... ugariak izan dira Euskal Herrian ere. EAJ, UPN eta PPrenera, murrizketa eta pribatizazio politiken aurkako jarrera hau instituzioetara iritsi da, bereziki UPNk eta PPk jasandako emaitza txarretan eta ezkerrean gorakadan islatuz.

Nafarroan azken urteetan UPNren aurka antolatu diren mobilizazio eta indar erakustaldiek beren emaitza izan zuten. Iruñean, UPNren ondoren (10 zinegotzirekin), zerrenda

bozkatuena EHBildu izan zen, 5 zinegotzirekin. Azkenean Gero Bai (5 zinegotzi), Podemos-Ahal Duguk babestutako Aranzadiren (3 zinegotzi) eta Izquierda-Ezkerraren (zinegotzi bat) babesarekin EHBilduko Joseba Asiron da Iruñeko alkatea. Asironek alkate makila hartu zuen egunean ikusi ahal izan zen Nafarroako hiriburuko kaleetan sortutako poza eta esperantza.

ESKUIN ESPAINIARRAK MEREZITAKOAK JASO DU. ZERGATIK EZ EAJK?

Euskal Autonomi Erkidegoan PPk 53.000 boto galdu zituen, 2011ko emaitzekin konparatuta %34,6ko beherakada jaso zuen, estatu mailako batez bestekoa baino gehiago (%28,8). Baina erorketa hau, neurri handi batean, Ciudadanos (22.199 bozka lortu ditu, %2 EAE osoan) eta EAJk konpentsatu zuten (26.000 boto gehiago atera ditu). Zalantzarik gabe, EAJk eskuineko bozka emaitza kontzentratzea lortu zuen, tartean, ezker abertzalearen eta Podemos-Ahal Duguren "aurkako" botoa eman zutenena.

Diputazioetako eta udaletako gobernuak osatzean, 1978az geroztik lortzen duen botere instituzional handiena eskuratu dute euskal burgesiak eta bere alderdi politikoak. EAJk, Geroa Bairekin batera, Bizkaian boterean jarraitzen duen bitartean PP kendu du Arabatik, UPN Nafarroatik eta EHBildu Gipuzkoatik. Azken herrialde honetan gainera, Donostiakoarekin batera udal garrantzitsu askotako alkatetza lortu du (Arrasate, Bergara, Zarautz, Tolosa, Legazpi...).

Burgesia gustura dago emaitza hauekin. Geroa Bairen alde CEN patronal nafarrak egindako adierazpenek eta EAEko Confebask patronalak EAJren igoerarekin hartutako





pozak erakusten dute zein klaseren interesak ordezkatzan dituzten.

Baina zergatik ez zuen behera egin EAJk, UPNk Nafarroan bezala, PPK Estatuan bezala edo CiUk Catalunya bezala? Arrazoi bat baino gehiago egon daitekeen arren, beharrezkoa da bereziki horietako arrazoi batez hitz egitea. Estatu mailan edo Europan eta munduan bizitzen ari garen polarizazio indartsu eta eskuinteko politiken aurkako mobilizazio sozialen garaian, akatsa da EHBilduko eta Sortuko zuzendaritzek behin eta berriro eskua luzatzea EAJri fronte interklasistak sortzeko helburuarekin. Akatsa da egun batean EAJren ustelkeria kasuak, murrizketak edo pribatizazioak salatzea eta hurrengo egunean eskua luzatzea akordioetarako eta kolaboraziorako.

EAJ eta PP elkartzuta daude oinarritzko gaietan: Kutxabank, Abiadura Handiko Trena, euskal gazteriaren aurkako errepresioa, osasun publikoko murrizketak eta kaleratzeak, LOMCEn aplikazioa, ekainean Eusko Legebiltzarren aurrera ateratako Etxebizitza Legea (EAJ eta PPK aurka bozkatu zuten)...

Horregatik, beharrezkoa da ezker abertzaleak, sindikatuek eta orain Podemos-Ahal Duguk ere EAJ benetan zer den esatea. EAJ euskal kapitalisten eta aberatsen alderdia da; EAJ bankuen, multinazionalen eta kapital internazionalaren instrumentu politikoa da; EAJ euskal patronalekin batera langile klasea zapaltzeko eta honen lan baldintzak ahal den gehien okertzeko tresna da; EAJ osasun eta hezkuntza publikoa suntsitu eta pribatukoaren negozioa areagotzeko baliabidea da; EAJ eskubide demokratiakoak ukatzeko eta euskal preso politikoak kartzelan eta urrutitatu mantentzeko sostengua da; EAJ PPren, eskuin espainiarraren eta IBEX 35aren aliatua da; eta bereziki honakoa defendatu behar da: EAJ ez da Euskal Herriko eskubide demokratikoen, langileen, langabetuen, pentsionisten, sektore behartsuenen eta gazteriaren aliatua, ez, hauen guztien etsai nagusia da. Horregatik, gure ustez akatsa da, adibidez, ezker abertzalearen zuzendaritzak EAJ aliatu posible gisa aurkeztea. Jarrera honek konfusioa eragiten du herritar askoren, EAJrengan esperantza izaten jarraitzea bultzatzen baititu.

EZKER ABERTZALEA ETA EZKERRAREN POTENTZIALA EUSKAL HERRIAN

Hauteskundeetako datuek erakutsi zuten EHBilduk ezkerretik galdu zituela botoak. Podemos-Ahal Duguri botoa ematera joandakoek aldaketaren aldeko botoa eman nahi izan zuten, sistema injustu baten, ustelkeriaren eta murrizketa politiken aurkako botoa. Podemos-Ahal Duguk hiriburuetan eta langile auzoetan lortu zituen bere emaitza onenak. Foru hauteskundeetan bigarren indarra izan zen Bilbon, 24.432 botorekin (%15), Santurtzi (%18,7), Sestao (%17,23), Erandio (%19,95) eta Leioa (%20,07) bezalako tokietan emaitza bikainak lortu zituen. Gipuzkoan adibidez, Irun (%20,25) eta Oreretan (%18,09) hirugarren indarra izan zen. Urtebete besterik ez duen alderdi hau indar handiarekin sartu da diputazioetan ere: Bizkaian 6 diputatu 82.107 botorekin (%14,53), beste 6 Gipuzkoan 43.136 botorekin (%12,06), Araban 8 diputatu 23.103 botorekin (%14,52) eta Nafarroan 7 diputatu 45.848 botorekin (%13,71).

EHBilduk behera egin arren, nabarmena da Euskal Herrian ezkerak duen potentziala. Ezker abertzaleak eta Podemos-Ahal Duguk aukera ezin hobea dute hori aprobetxatzeko. Oreretan gertatu den bezala (Podemos-Ahal Duguren hautagaitzak emandako babesari esker EHBilduk alkatetza lortu du), Euskal Herriko langile eta sektore zapalduentzako funtsezkoa izango da ezker abertzaleak eta Podemos-Ahal Duguk beren indarrak elkartzea eskuinari eta sozialdemokraziari aurre egiteko.

Gaur, iraganean bezala, Euskal Herriko arazoek langile klasearen eta gazteriaren borrokaren eskutik lortuko dute irtenbidea. 30eko eta 70eko hamarkadetan gertatu moduan, 2015ean ere Euskal Herri osoan, Catalunya, Galizako eta Estatu langileak izango dira aliatuak gure helburuak lortzeko: euskal preso politikoak gerturatzea eta amnistia, autodeterminazio eskubidea eta sozialismoa. EAJk, berriz, une historiko guztietan gure herria saldu du. 30eko eta 70eko hamarkadan egin zuen, eta berriro egingo du gaur ere kapital handiaren interesak defendatzen baititu. Euskal burgesia eta bere alderdia urtean behin atera daitezke "erabakitze eskubidearen alde" demagogia egitera, baina beren helburu bakarra bankari eta enpresari handien poltsikoak puzten jarraitzea da. Eta horretarako, borroka egingo dute Estatu espainiarrak eskaintzen dien merkatuan jarraitzeko eta Estatu aparatuek espainiarraren indarrak langile eta gazte mugimenduaren aurka erabiltzen jarraitzeko.

Kapitalismoaren krisiak gaixorik dagoen sistemaren krisi organikoa adierazten du. Horregatik, beharrezkoa da kapitalismoa historiaren zakkarrontzira botatzea. Ezker abertzalea borrokan honen abangoardian egon daiteke eta egon behar du. Helburu honetan, funtsezkoa da autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka eta sozialismoaren aldeko borroka elkarriz lotzea. Langile mugimenduaren historiak erakutsi duen bezala, Euskal Herriko, estatuko eta Europako langile klasearen eta sektore zapalduen borroka batasuna da bide bakarra, edozein naziotako burgesiaren aurka, Euskal Herriko barne.

CCOO eta UGTko zuzendaritzen traizio berria bake soziala inposatzen saiatzeko

Maiatzaren 24ko hauteskundeak izan eta gutxira, CCOO eta UGT sindikatueta arduradunek espainiar patronalarekin aurre akordio berri bat sinatu zuten Lan eta Hitzarmen Kolektiboen gaineko Akordioa berritzeko (LHKA). Horren helburua Estatu espainiarreko langileen lan baldintzak negoziatzeko gida izatea da, eta bi sindikatuek, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako federazioak barne, arrakasta handizat saldu nahi izan dute. Bestelakoa da errealitatea, ordea. Akordioak aholku batzuetaz hitz egiten du, hau da, ez ditu enpresariak ezertara behartzen; gainera patronalari egindako kontzesioz beterik dago: denbora partzialeko kontratuen alde egiten da, malgutasuna ontzat hartzen da eta soldatak enpresen irabazien arabera egokitzea aholkatzen da, Europar Batzordeak eskatu bezala.

ANDER AZKARATE

Akordioaren edukiek eta formek erakusten dute CCOO eta UGT sindikatueta zuzendaritzek zenbateraino bat egin duten interesetan burgesiarrekin. Joan Rosell eta Antonio Garamendi patronaletako agintariek eta Rajoyren gobernuarekin hauteskunde aurretik atera zuten argazkiak oxigeno gehiago eman zion PPri, langileek eta gazteek bizi duten miseriaren, langabeziaren eta prekarietatearen egoerarekin zer ikusirik ez duen egonkortasun sozialaren irudia eskaini baitzuten. Coca Colako langileen eta Movistarreko tekniko azpikontratatuaren borroka erdugarrien adibideekin ikusi den bezala, langile klaseak eta gazte-riak borrokarako eta gizartea aldatzeko borondate handia dute, ez daukate CCOO eta UGTko agintariek behin eta berriz era-

kusten duten itun sozialen aldeko jarrera.

Sindikatuaren babesa justifikatzeko, LHKAk gogoeta orokor batzuk ditu: “behin behineko kontratuak finko bilakatzea sustatu beharko da” edo “lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten langileak kontratatzea erraztu beharko da”. Hitz eder hauek ez dute benetako eraginik izango, ez

baitute berme legalik. Gainera, garaipen sindikaltzat aurkeztu duten soldaten gaineko atala erretorika hutsa da. Esaten denez, soldatak %1era arte igoko dira aurtan, eta 2016an %1,5. Horrek aukera guztiak uzten ditu irekirik, ez baitago soldatei mugak jartze dizkien legerik. Horretaz gain, itunak berak esaten du soldata igoerak enpresa edo sektore baten “egoera berezietara” egokituko direla. Antonio Garamendi CEOEko lehendakariordeak akordioa sinatu eta gutxira esan zuen soldatak aurtan “minus infinitutik %1era igo” daitezkeela; hala, argi utzi zuen enpresari askoren asmoa soldatak jaisten jarraitzea dela.

Dena dela, Madrilen sinatu zen akordioak ez ditu “lan kalitatearen aldeko” aholkuak jasotzen CCOO eta UGTko agintariek esan duten bezala. Testua patronalari egindako kontzesioz gainezka dago; besteak beste, “kontzeptu erretributiboak berritzen dira, horrela ekoizpenari eta enpresaren etekinei lotutakoak sartzen dira”. Pa-



tronalaren aldarrikapen historikoa da soldataren parte finkoa murriztea eta emaitzari lotutakoarena handitzea. Patronalak eta sindikatuek akordioa sinatu eta egun gutxiren buruan, soldatak ekoizpenari lotzeko ideia berbera sartu zuen Europar Batasunak Estatu espainiarrari datozen urteetarako inposatu dizkion neurrien artean, ospitaleetarako eta sendagaietarako gastuen murrizketa berriekin batera.

Gainera, Akordioak esaten duenez, “lanaldi partzial mugagabeko kontratua alternatiba izan daiteke behin behineko kontratuentzat”, ordutegi malgutasuna eta mugikortasun funtzionala sustatzen ditu; halaber, lan osasunari edo absentismoari loturiko gaetan enpresariaren tesia bere egiten du akordioak eta “hitzarmen kolektiboan aurreikuspen sozial osagarria garatzeko sistema kontuan hartzeko” konpromisoa ere hartzen du, hau da, funts partikularren alde egiten da pentsio sistema publikoa indartu beharrean.

Miguel Angel Lujua Confebask euskal patronaleko lehendakariak akordioa EAEn aplikatzeko duen interesak erakusten du langile klaseari ez diola ezer onik ekarriko. Euskal burgesiaren ordezkari gorenak behin baino gehiagotan eman du ulertzera EAERako gisa honetako akordio bat lortu nahi zuela CCOO eta UGTk osatzen duten gutxiengo sindikalarrekin, ELA eta LAB sindikatuen gaintik igaroz. Azken hauek ongi salatu dituzte LHKAren edukiak eta Euskal Herrira ekartzen ez dutela lagunduko azaldu dute.

Burgesiaren urduritasuna bistakoa da. M24ko hauteskundeetan eskuinak jasandako porrotak eta borrokatzen duen ezkeraren aurrerakadak asko kezkatzen ditu enpresari espainiarrak, eta CCOO eta UGTko agintariak erabiltzen dituzte bake soziala inposatzeko. Euskal burgesiaren egoera ez da bestelakoa. EAJK Gasteizko go-



bernuan dela inposatu dituen murrizketa sozialak eta laboralak ez dira besterik gabe pasatu langile klasearentzat eta euskal gazteriantzat; hauek gero eta prekaritate handiagoa jasaten baitute. Berriki Caritas berak argitara emandako ikerketa baten arabera “EAEn pobrezia kronifikatzen ari da”. Prekarizazio sozialaren testuinguru honetan, ez da harrizkoa Podemos-Ahal dugu bezalako alderdiak indar handiz agertzea. Podemos-Ahal Dugu eta EHBilduren emaitzak batuta ikus daiteke zenbaterainoko potentziala duen ezkerak Euskal Herrian.

Prekarietatearen gorakadak lan gatazka eredugarriak leherrarazi ditu, besteak beste Moviestarreko langile azpikontratatuena. Bizkaian izan zuten erreferentzia fokuetako bat. Bi hilabete eta erdiko grebaren ondoren, UGT eta CCOOko agintariak Telefonicarekin bake soziala sinatu nahi zuten arren borrokari sabotaia eginez, langileek garaipen garrantzitsua lortu zuten. Bizkaian lan egiten duten kontrata gehienek azpikontratutako teknikoek soldatak igo behar izan dituzte %25 eta %90 bitartean. Gainera, langileen kontratazio eta lan segurtasun aldarrikapen nagusiak bermatu dira.

Garaipena Moviestarreko langileen borroka tinkoari eta langile klaseak orokorrean eskaintako babesari esker lortu da, eta ez negoziazio mahaiari esker. Moviestarreko langileek beste behin erakutsi dute langile klasearen eta gazteriaren borroka eta elkartasuna beharrezkoa dela CCOO eta UGTren sindikalismo burokratikoari aurre egin eta lan baldintza hobekak eta lanpostuak defendatzeko.

Kapitalismoa ez da gai Euskal Herriko gazte eta langileek sufritzen dituzten langabezia eta prekarietatea konpontzeko; aitzitik, burgesiaren bere pribilegioak mantentzeko duen bide bakarra esku-bide sozialak eta soldatak murrizten jarraitzea da, eta bere oztopo bakarra langile klasearen borroka dira. CCOO eta UGTko agintariak EAEn eta Nafarroan LHKAren antzeko akordioaren bat sinatzen badu, alfonbra gorria jarriko diete enpresariari langile klasea zapaltzen jarraitzeko. ELA eta LABek zuzendaritzek ere ekintzekin erakutsi behar dute elkarrizketa sozialaren eta antzeko itunen aurkako jarrera, borroka elkartzuz eta sektore prekarizatuenetara zabalduz zapalkuntzarekin amaitzeko. Moviestarreko langileek erakutsi dute lor daitekeela.

TTIP: multinazionalak babesteko eta langile klasearen eskubideak murrizteko ituna

TTIP ituna (Komertzio eta Inbertsiorako Akordio Transatlantikoa) Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) eta Europako Batasuneko (EB) elite ekonomikoentzako komertzio librerako tratatu bat da. Itun honek botere gehiago emango die enpresa multinazionalari, hauek negozioak modu errazago batean egitea ahalbidetzeko eta irabazi gehiago lortzeko.

ALAITZ ARRUABARRENA

Helburua sinatzen duten herrialdeen arteko merkatuak zabaltzea da, arantzelak eta zergak deuseztatuz. Hau da zati ofiziala. Hala ere, finean helburu nagusia bestelakoa da, dagoeneko baxuak baitira arantzelak eta zergak (%3,5 AEBn eta %5 EBn). Helburu nagusia ingurumena, lana, osasuna eta jabetza intelektuala bezalako materien inguruan indarrean dauden erregulazioak jaistera da. Honek guztiak modu negatiboan eragingo die gizarte osoaren eskubidei, batez ere EBko herrialdeetako, bertan baitaude eskubide hauek babesten dituzten erregulazio mota horiek. Mota honetako itun bat sinatzen duten kideentzat onuragarria izan dadin, guztiek lege eta estandar berberak izan behar dituzte. Egungo erregulazioak arazo bat dira multinazionalentzat, be-

raien ustetan duten guztia baino are gehiago irabaztea eragozten dieten alferrikako gastu bat.

DENAK BALIO DU IRABAZI GEHIAGO LORTZEKO

2009an hasi ziren TTIP sekretuan negoziatzen, nahiz eta guk ezer ez dugun jakin AEBk eta EBk 2013ko ekainean negoziazioen "hasiera" publiko egin zuten arte. Itun hau BRICS taldea (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) geldiarazteko helburuz pentsatu da, eta helburu nagusia Txina eta Errusiaren zabalpena geratzea da. Gaur egungo krisi ekonomikoak herrialde garatuetan eragin gehiago izan du garapen bidean daudenetan baino. 2015tik aurrera, komertzioaren %90 AEBko eta EBko mugetatik kanpo egingo da. Elite politiko eta ekonomiko estatuba-

tuar eta europarrek itun honen birtutez botere gehiago lortzea eta enpresa multinazional handienek libreago mugitzeko aukera izatea biltzen dute. Arma hauek erabiltzen dituzte klase dominatzaile europar eta estatubatuarrak mundu osoan beren eredu politiko eta ekonomikoa inposatzeko.

Itun honekin, soldadak oso baxuak diren eta erregulaziorik ez duten herrialdeekin lehiatu behar dugu. TTIParekin jokoan zer dagoen ikusteko, jakin beharra daukagu aipatzen ditugun erregulazio hauek, besteak beste, kontsumitzaileak babesten dituztenak direla: arduraren printzipioa da bat, zeinak enpresak behartzen dituzten hainbat proba egitera produktu bat merkaturatu aurretik, hauek osasunarentzat kaltegarri ez direla frogatzeko. Bestalde, langileak babesteko hitzarmen kolektiboak ere bertan behera utzi nahi ditu TTIPak, dagoeneko, horiek indargabetu nahian dabil PPren gobernuaren. Hirugarren erregulazioa jabetza intelektualarena da. Honi esker, adibidez, medikamentu baten patente batek 8-10 urteko balioa izan beharrean 25 urtetara luzatuko da. Horrela, ezinezkoa izango da gainontzeko farmazutikoek generikoak modu ekonomikoago batean fabrikatu eta merkaturatu saltzea. Bestalde, praktikan, kendu edo definitu gabe uzten du datuen baberako eskubidea (LOPD), oso garrantzitsua EBn eta ez hainbeste AEBetan, bertan ohikoa baita Google bezalako datuen gestiorako enpresa handiek beraien erabiltzaileen datuak AEBko gobernuari ematea. Ingurumenari dagokionez berriaz, fracking-ak daukan eragina ikusi besterik ez dago.





BIDEA LIBRE MULTINAZIONALENTZAT

TTIParen aldekoek itun honek enpresei onurak ekarriko dizkiela azpimarratzen dute arantzelak eta zergak kenduta produktu merkeagoa eta konpetitiboagoa izango dutelako. Logika honetan, kontsumitzaileok gehiago erosteko aukera izango dugu, enpresek etekin gehiago izango dute eta zuzenean lanpostu gehiago sortuko dira. Ez da esaten, ordea, sortuko den enplegu hau kalitate txarrekoa izango dela, soldata baxuekin, gaur egun, azken lan erreformarekin, estatu espainiarrean ikusten den moduan. EBeko txostenek ere aipatzen dute ituna onartzearekin 430.000 – 1.100.000 lanpostu galduko direla. Massachussetseko Unibertsitateak berriz galera hau 600.000 lanpostutakoa izango dela esan du, eta soldatetan pertsonako urtean 5.000 euroko galera bat emango dela. Hau da, itunak soldaten jaitziera eta prekarietatearen igoera sakontzeko bakarrik balioko du. Marxen hitzetan, bizirauteko soldatetarako joera da.

Adibide moduan, antzeko kasua izan zen 1992an AEBk eta Mexikok sinatutako “Tratado de Libre Comercio (NAFTA)” delakoa. Itun honek ere 23 miloi lan postu sortuko zituela adierazi zuten bere bultzatzaileek. Baina azterketa ezberdinek frogatu duten moduan, jakina da 1,1 miloi lanpostu inguru suntsitu dituela. Soldatak jaitsi

egin dira, eta enpresa txiki asko itearen eta beste hainbat deslokalizatzearen ondorioz, langabeziak gora egin du. Aurreikus zitekeen bezala, Mexiko izan da eraginik handiena pairatu duen herrialdea, honen baldintzak okerragoak baitira bere “sozioenekin” alderatuta, bere egoera industrialak kaxkarragoa delako. TTIPk gehien kaltetuko dituen herrialdeak Europa hegoaldeko herrialdeak dira, hauen industria txikiagoa eta ahulagoa delako Alemaniarekin alderatuz.

Hau guztia praktikan jarri ahal izateko, itunak multinazionalen zuzendutako tribunal internazional pribatuak sortzea aurreikusten du, eta multinazional handiek zuzenduko dituzte. Pauso honek justizia beraren deslokalizazioa suposatuko du. TTIParekin, enpresa batek gobernu bat salatu ahalko du espero zituen irabaziak izan ez dituelako herrialde horretan “egin diren lege aldaketan ondorioz”.

ZERBITZU PUBLIKOEN PRIBATIZAZIOA

Hala ere, hau ez da negoziatzen ari diren itun bakarra. Momentu hauetan TISA (Merkataritza Zerbitzuei buruzko Akordioa) ere negoziatzen ari dira. Akordio honek eragin zuzena izango du zerbitzu publikoetan, osasunean eta hezkuntzan. Helburua zerbitzu hauek ere komertzializatzea da eta honela atzerriko enpresa pribatuek ere zerbitzu hauek kudeatu eta haue-

kin negozioa egiteko aukera izango dute. Etorkezunean egon daitezkeen gobernu ezkertiarren aurrean dena lotuta utzi nahi dute, hauen maniobratzeko marjinak ahalik eta gehien murriztuz.

Itun honek estatuen burujabetza demokratikoa are gehiago ahulduko du botere ekonomikoaren aurrean. Negoziazio osoaren ardatza multinazional handien interesak dira, herritarron interesen gainetik.

Akordio hauek inflexio puntu bat izango dira politika sozial, ingurumen eta lan harremanen alorrean lobbien ekonomikoaren mesedetan. Krisi ekonomiko honen ondorio nabarmenetako bat potentzia kapitalista handien arteko tentsioa eta gerra gupidagabea da merkatuen kontrolagatik. Kapitalismoaren ahultasunetako bat gainproduktioagatikoa krisiak eta kapitalaren pilaketa dira. Kapitalista handiak non inbertitu bilatuz dabilta krisi aurretik zituzten irabaziak edo handiagoak bermatu ahal izateko. Honek nabarmen agertzen du klase baten estrategiaren aurrean gaudela. Estrategia hau Estatuaren bidez gauzatu nahi da helburu garbi batekin: lanaren balioa jaitsi eta gainbalioaren zati handiagoa bereganatzea.

Gazteok eta langileok TTIP, TISA eta ISDS bezalako itunen aurkako jarrera garbia agertu beharra daukagu. Akordi komertzial hauen helburu bakarra krisia langileon bizkar gainean jartzea da multinazional handiak aberasten jarraitzearen kontura. Itun hauek arrisku erreal bat dira langile klasearentzat. Mozal legea, Zigor Kodearen erreforma, yihadismoaren aurkako ituna edo istiluen aurkako materialetan PPren gobernuak egindako inbertsio garrantzitsuak ez dira ez kasualitate ezta gertaera isolatuak. Neurri guzti hauek klase kapitalistarentzat ezinbesteko instrumentuak dira langile klaseak antolatuko dituen mobilizazio eta aldarrikapen guztiak zapaldu eta gertatzen saiatzeko.

Balkanak: herri iraultza Mazedonian

Maiatzean Nikola Gruevski Mazedoniako Errepublikako Lehen Ministro kontserbadorearen dimisioa eskatzen zuten mobilizazio indartsuak hasi ziren. Arrazoia honakoa da: oposizioko buruak, Zoran Saev sozialdemokratak, jakitera eman zuen gobernuak 20.000 entzuketa ilegal baino gehiago egin dizkiela kazetari, agintari politiko eta erlijiosoei. Gainera gobernu krisi hau sakondu egin zen elkarrizketa baten filtrazioarengatik; bertan Lehen Ministroa entzun daiteke Barne Ministerioko karguekin eztabaidatzen nola estali behar zen 2011n poliziak hildako 21 urteko gazte baten kasua.

IBAN PEREZ

Honi guztiari gehitu behar zaizkio 2006an Gruevski boterera heldu zene-tik eman diren ustelkeria kasuak: 2014ko hauteskundeetan iruzurra botoak masiboki erostegatik, klientelismoa eta erre-kurtso publikoen xahutzea obra arkitektoniko ikaragarrietan (Alejandro Magnoren 22 metroko altuerako estatua faraonikoa adi-

bidez). Hau guztia Mazedonia Europako herrialderik txiroenetakoa eta zerbitzu sozial gutxien dituen denean.

Herrialdeak 1991n "independentzia" lortuz gerotik bizi duen egoera ekonomikoa latza da: %30eko langabezia, lan merkatua oso prekarioa eta % 30eko pobrezia ditu. Honek guztiak eragin du emigrazioa izatea bizi baldintzak hobetzeko irtenbide bakarra: 400.000 emigrante bai-

no gehiago ditu gutxi gora behera bi milioi biztanle dituen herrialdeak. Emigrante hauek familia askoren sostengu ekonomiko bihurtu dira atzeretik egiten dituzten diru bidalketengatik. Diru laguntza hauek BPGaren %18a hartzen dute.

ZATIKETA NAZIONALAK EZ DU BORROKA GELDITU

Testuinguru honekin, protesta soziala ez da zerbait berria. 2014ko azaro eta abenduan ikasle mobilizazio garrantzitsuak egon ziren hezkuntza publikoaren degradazioaren eta unibertsitate publikoaren autonomia galeraren aurka. Mobilizazio hauek unibertsitate legerari zuzenketa berririk ez sartzera derrigortu zuten gobernua. Otsailean, mobilizazioa osasun publikoaren arreta faltagatik hil zen Tamara Dimovska haurrarenengatik izan zen. Honen ondorioz Osasun Ministerioko bi goi karguk dimisioa eman zuten eta barkamen ofiziala eskatu behar izan zuten. Eta azkenik, gobernuaren dimisioa eskatzen duten mobilizazio masiboek maiatzean eztanda egin zuten (100.000 pertsona baino gehiagoko manifestazioak antolatzaileen arabera). Mugimendu honen aspektu oso garrantzitsuetako bat da Mazedoniako gehiengoak eta Albaniako gutxiengoak banaketa nazionala gaintzea lortu dutela (albaniarrak populazioaren laurdena dira). Bi talde etnikoek batera parte hartu dute manifestazioetan; Mazedoniako eta Albaniako banderak bata besteen alboan ikus zitezkeen.





Azken 25 urteetan, Balkanetan etengabe erabili da auzi nazionala gatazka sozialak estaltzeko helburuarekin. Honen adibide da pasa den maiatzaren 9an Kumanovo hirian gertatutako tiroketa, non zortzi polizia eta hamalau albaniarrek bizitza galdu zuten enfrontamendu batean. Gruevskiren gobernuak denbora galdu gabe Kosovotik iritsitako "talde separatistek" egotzi zien eraso, baina Kosovoko gobernuak gezurtatu egin zuen. Ondoren jakin zen pistolarien taldeak erlazioa zuela banda kriminalekin eta hauek ondo erlazioan zela zeudela aldi berean poliziaekin. Ohikoa izaten da talde hauek Kosovo, Serbia eta Mazedoniako mugetan aritzea, eta honek guztiak zalantzan jarri du bertsio ofiziala, tiroketaren atzean gobernu dagoenaren susmoa baitago.

Hala ere, Kumanovoko gertaerak ezin izan zuen albo batera utzi Mazedoniako Errepublikako gatazka, eta ezin izan zuen saihestu maiatzaren 12an goian aipatutako grabaketetan inplikaturako 3 goi kargudunen dimisioa: Saso Mijalkov Inteligentzia Zerbitzuko burua, Gordana Jankuloska Barne Ministroa

eta Mile Janakieski Garraio Ministroa.

KAPITALISMOAREN HONDAMENDIA BALKANETAN

90eko hamarkadaren hasieran emandako Jugoslavia ohiaren zatiketak hondamendi ikaragarria suposatu du sortu ziren estatuetako herritarrentzat. Ameriketako Estatu Batuetako eta Alemaniako burgesiak bultzatuta, Europa ekialdean boterea lortzeko eta Errusia zokoratzeko, hamarkada bat iraun zuen gatazka armatu basatiak eragin zituen Jugoslaviaren zatiketak.

Aldi berean, kapitalismoa berezartzeak izugarriko ondorio kaltegarriak izan zituen populazioaren gehiengoarentzat. Europan sartzearen izenean eta kapital handiaren logika zapaltzailearen eskutik, herrialde guztietan, bata bestearen atzetik, murrizketa sozialak eta ekoizpen sistemaren pribatizazioa bezalako politika gogorrak inposatu ziren. Pribatizazio hauek gainera, ehun industrialaren desartikulazio bortitza suposatu zuten. Enpresari berriek ez zuten helburu ekoizpena mantentzea eta

lantokiak desegiten hasi ziren irabazi azkarragoak lortzeko helburuarekin. Krisia iristearekin, egoerak okerrera egin du, kanpoko inbertsioa murriztu egin da. Europar Batasunerako esportazioak %65 jaitsi diren bitartean Mazedoniatik kanpora joan zirenen diru bidalketek ere behera egin dute.

Gaur egun, langabezia tasa %14an dago Albanian, eta %45ean Kosovon eta Bosnia Hertzegovinan. Gazteen artean aldiz, langabezia %40koa da, %50etik gorakoa Serbian, Kosovon eta Bosnia Hertzegovinan. Soldadak Europako batez bestekoaren %10ean daude Albanian eta %25ean Montenegro. Bizi baldintzen degradazio prozesu guzti hau eta Balkanetako klase arteko borroka-aren gorakada progresiboa lotuta da. Horrela, azken urteetan, politika ekonomikoen aurkako hainbat borroka ikusi ditugu: Kroazian 2011n, Eslovenian 2012an, Serbian ikasle mobilizazioak 2007, 2009 eta 2014an eta Bosniako udaberria deitutako iaz.

Hankaz gora jarri dira orain dela 24 urte Jugoslavia ohiaren amaieran Balkanetan piztu ziren gezurretan oinarritutako esperantza guztiak. Lehendabizi gerra etorri zen, eta ondoren hondamendi ekonomia eta biztanleen txiroteza. Honek guztiak agerian utzi du kapitalismoaren porrota eta bere gaitasun eza inolako paper aurrerakoirik jokatzeke. Bosnia eta Mazedoniako errebolta inflexio puntu bat dira, batetik, borroka-ko lehenengo lerroan jarri delako langile klasea, eta bestetik, batasunean oinarriturik egin duelako zatiketa nazionalak eragiten duten sakabanaketei aurre eginez, burgesiak eta inperialismoak behin eta berriz zatiketaren estrategia erabili arren.

Federico Engels Fundazioaren argitalpen berria: Leon Trotskyren *La guerra y la Internacional*

Trotskyk liburuxka labur hau 1914ko urrian idatzi zuen, dagoeneko Lehen Mundu Gerra hasita zegoenean. Armada alemaniarrek Belgika inbaditu eta Estatu frantziarraren zati bat okupatzen ari zen. "Terrorearen" politika aplikatuz hiri osoak suntsitzen zituen, Lovaina esaterako, eta herritar zibilen aurkako sarraskiak egin zituen, batez ere inbasioaren aurkako oposizio armatua bazegoen.

IKER OTERMIN

Egoera hartan, kapitalismo inperialista lehertzean, ekonomia kolapsatzen denean, estatu nazionalak biziraupenaren mugan daudenean, langile klaseari aurrera egiteko aukera historikoa aurkeztzen zaionean, hau da, une historikoak azken borroka irabazteko antolatzea eta irabaztea eskatzen duenean, Europako langile klasearen alderdi eta antolakuntza nagusietako zuzendaritzek langileen interesak traizionatzen dituzte eta klase dominatzailearen eta prestatzen ari diren gerraren zerbitzura jartzen dira.

Dena utzi zuten albo batera egun batzuen buruan: programa iraultzailea, marxismoa, internazionalismoa, langile prentsa, etab. Ondorio gisa, Internazionalak hondoa jo zuen. Guztiz erori zen hainbeste ahalegin eta borrokarekin eraiki zen tresna, mundu mailako langile klasearen interesak defendatzeko altxatu zena, inolako muga, nazio, arraza eta kultura bereizketarik egin gabe, bere izaera internazionala bermatu eta mundu guztiko langileen interes kolektibo eta komun aldea egin zuena. "Herrialde guztietako langileak, elkartu zaitezte" leloaren ordez "Herrialde guztietako langileak, elkar akaba-

tu zaitezte lubakietan, kapitalisten irabazien mesedetan" defendatu zuten praktikan.

Egoera horren aurrean aurkitu ziren, langile mugimenduaren historian aurrekaririk ez zuen traizio honi aurka egin zioten iraultzaile apurrak. Lenin eta boltxebike errusiarrak, Martovekin zeuden mentxebike internazionalista gutxi batzuk, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako korrante internazionalista, Rosa Luxemburgo, Karl Liebknecht eta Leo Jogiches buru zituen, Serbiako Alderdi Sozialdemo-

krata gaztea, Tribunen biltzen ziren Holandako sozialistak, Bulgaria eta Italiako alderdi sozialistek gutxiengo internazionalista, James Connolly Irlandan eta Trotsky. Hauek izan ziren, alderdi sozialdemokratetako zuzendaritzan korrante sozial-chauvinista eta burgesari aurre egin zietenak.

"SOZIALISMO INPERIALISTA"

Urtarrilaren 10ean, Bilbon, 80.000 Trotskyren liburua Balkanetako egoera aztertuz hasten da. Europako potentzia handiek eta Turkiak beren aspirazio inperialistak aurrera eramateko erabili zuten Balkanetako auzi nazionala. Trotskyk Errusiako egoeran sakontzen jarraitzen du ondoren. Erregimen tsaristaren katastrofe militarrek ez-tanda iraultzaile bat eragiteko aukera aurreikusitako zuen. Alemaniako egoera ere landu zuen, eta gogor kritikatu zituen alderdi sozialdemokrataren posizioa eta gerraren izaera defentsiboaz zuen teoria.

Trotskyk aurre egiten dio aparatu sozialdemokratak beren kapitulazioa justifikatzeko atera zuen "gerra defentsibo eta ofentsiboaren" teoria faltsuari eta erabat desegin zuen ustezko "independentzia nazionalaren defentsaren" gaineko tesia, langileak engainatu eta armadan sartzea bultzatzea baitzen erreformisten tesi honen helburua. Liburu honetan auzi oso interesgarriak lantzen dira; esate baterako, Trotskyk azaltzen du, Estatuaren aldetik mobilizazio militar handiena gauzatzen den momentuek bat egiten dutela sozialismoaren isolamendu handieneko momentuekin. Langile klasearen abangoardia



gutxiengoan sentitzen dela deskribatzen du eta bere erakundeak zapuztuak geratzen direla. Izan ere Estatuaren aparatu militar indartsuak eta gobernuaren botere kontzentratuak, alderdi guztien eta instituzio burges guztien laguntzaz, politikoki atzeratuenak diren sektoreengan itxaropena pizten dute mobilizazio militarrekin. Gerrak herritarren elementurik babesgabeentzako perspektiba berriak irekitzen ditu modu faltsu batean, jabe txiki eta artisauentzako, nekazal guneetako langileentzako, etab.; baldintza normaletan hauek ez zuten armadan izena emango. Modu horretan, masa hauen bihotzak, miseriatik eta morrontzatik erauziak, esperantza nahasiez betetzen dira. Emozio horiek, lehen momentuetan, “mozkorraldi chauvinista” baten forma hartzen dutenean, langile klaseko sektore handiak ere eramaten ditu berekin. Baina autoreak azaltzen duen bezala, langile alderdiek gerra hasieran galdu lezaketan eragin gutzia, bi edo hiru bider handiturik berreskuratuko litzateke iritzi publikoan saihestezina zen biraketa ematean, lehen eskutik ezagutzean gerraren izugarrikeriak eta benetako interesak.

Beste funtsezko puntu bat azaltzen du Trotskyk: langile klasearen mobilizazio militarra Internazionalaren hondoratzeko seinalea izan bazen, langile alderdiak protesta txikienik egin gabe gobernuetara eta armadetara batu baziren, hori gertatzeko arrazoi sakonak zeudelako izan zen, Internazional osoan berberak zirenak. Kausa horiek beraz, ez dira akats indibidualetan edo langile alderdietako agintarien inkompetentzian bilatu behar, Internazional Sozialista jaio eta garatu zen garaiko baldintza objektiboetan baizik. Bere lerroetan erreformismoaren eta errebisionismoaren garapena ahalbidetu zuten arrazoiak aztertzea da gakoa.

Beste aspektu garrantzitsu bat, autoreak “argitu ez den faktore” gisa kalifikatzen duena, langile mu-



gimenduak Estatuaren politika inperialistaren arrakastarekiko duen dependentzia da, bereziki bere gatazka ekonomikoetan. Horrela, beraz, Trotskyk aitortzen du, proletalgoko hainbat sektoreren berehalako interesak gobernuen kanpo politiken arrakasta edo porroten menpean geratzen direla.

Trotskyk “inperialismo sozialistaren” kontzeptua formulatu zuen sozialdemokrazia alemaniarrek izan zuen jarrera definitzeko. 1907ko Stuttgarteko Kongresuan azaldu zen dagoeneko posizio hau. Kongresu honetan, ordezkari alemaniar gehienek, bereziki sindikalistek, politika kolonialari buruzko ebazpen marxistaren aurka bozkatu zuten. “Internazionalaren barnean dauden joera inperialistak eta horiek alderdi sozialisten jarreran jokatzen duten paper izugarria ukatzea, ebidentziaren aurrean begiak ixtea da”. Eta honela amaitzen du: “Erreformismo sozialista, errealitatean, inperialismo sozialista bihurtu da”. Horregatik defendatzen du Trotskyk proletalga sozialismo internazionalistaren banderapean bakarrik bildu daitekeela, eta geldiezi-na izango dela iraultza sozialaren bidea hartzen duenean.

Azkenik, Mundu Gerraren aurka bakearen aldeko programa marxista aldarrikatzen du, gizateriaren ondare kultural eta materiala

salbatzeko ez ezik, baita proletalgaoren energia iraultzailea kontserbatzeko eta langile klasearen indarrak bateratzeko ere. Bakearen aldeko borroka, sozialismo iraultzailearen indarrak inperialismoaren aurka jartzea esan nahi du, honako aldarrikatuz: anexionik ez, indemnaziorik ez, nazio guztien autodeterminazio eskubidea, Europako Federazio Sozialista, monarkiarik gabe, armada iraunkorrik gabe, kasta feudalik gabe, diplomazia sekreturik gabe! Kontsigna iraultzaile hauek Internazionalako traidore sozial-chauvinisten aurkako borrokari lotzea planteatzen zuen autoreak, langile masen artean sozialismoak konkistatu zuen influentzia erabaili baitzuen helburu militaristetarako.

Honela amaitzen du Trotskyk: “Ez gara desesperazioan hondoratzen Internazionalaren porrotaren aurrean, historiak berak garbituko du forma zahar hori. Garai iraultzaileak antolakuntza modu berriak sortuko ditu. Argi mantentzen ditugu gure ideiak heriotzaren infernuko musikaren erdian. Bihar gaur baino askoz gehiago izango gara. Milioika bilduko dira gure banderapean, galtzeko ezer ez dutenak, beren kateak izan ezik”.

Hitz gutxitan esanda, langile internazionalismoaren testu handi baten aurrean gaude.

Burgesia europarrak Syriza zapaldu eta Grezia hondoratu nahi ditu

**Beharrezkoa da langile greziarrek boterea hartzea!
Bankaren nazionalizazioa langileen kontrolpean, oligarkia ekonomikoaren desjabetzea, masen mobilizazioa irabazi arte!**

IBON ARTOLA

Grezia garai historikoak bizitzen ari da. Urtarrilaren 25eko Syrizaren garaipena herrialdeko krisi iraultzaileko inflexio puntua izan zen. Ordutik, burgesia europarra eraso gogorra antolatzen ari da. Troikak Syriza eta borrokan ari den langile klasea zapaldu nahi ditu baliabide guztiak erabiliz, baina bereziki txantaje ekonomikoa eta “erreskatea” luzatzeko baldintza iraingarriak inposatuz. Ikasgai on bat eman nahi diote herri greziarrari, kapital finantziarioaren aurka Europan altxatzen diren zapalduak eskarmentatzeko. Biztanleriaren sufrimendu guztiak ez dira nahikoa burgesia europarrarentzat eta Nazioarteko Diru Funtsearentzat (NDF). Grezia kaosean murgiltzeko prest daude hertsura planetan inolako atzera pausorik emateko asmorik gabe.

Egoera latz honen aurrean, Tsipras eta Syrizaren gobernuak ardurarik historikoa dute: aurrerapauso bat emateko eta kapitalismoaren logikarekin hausteko unea da. Langile greziarren indarrean eta mobilizazioan oinarrituta, beharrezkoa da neurriak hartzea oligarkia ekonomikoa desjabetzeko, Greziako eraldaketa sozialistari bidea irekiz.

NEGOZIAKETA FALTSUA

Ekainaren 27an Troikaren eta gobernu greziarraren arteko negoziaketak eten ziren. Haustura honen itxurazko arrazoia Troikak zor greziarraren berrestrukturaketari emandako ezezkoa izan zen. Errealitatean, ordea, Troikak negoziaketa faltsu bat irudikatu zuen. Troikaren be-

netako helburua, hasiera hasieratik, Syriza makurraraztea eta herri greziarra errendiaraztea izan da Europa osoari mezu argi bat bidaltzeko.

Grezia eurogunetik atera dezakeen gatazka honen atzean bi alde daude. Batetik, kapitalista europarren eta greziarren interesak eta, bestetik, sistemaren logikarekin hausteko prest dagoen langile klasea mobilizatu. Funtsezkoa dena ondokoa da: kapitalistentzat ukazina denak talka egiten duela langile klasearentzat eta biztanleriaren gehiengoarentzat oinarritzkoa denarekin.



Hilabetetako “negoziaketek” eta Tsiprasen gobernuak egindako kontzesioek Troika harrotzeko bakarrik balio izan dute. Otsailaren 20ko akordioa ez zen aurrerapauso bat izan masa greziarren interesentzat, ezta Tsiprasek esan bezala “gerraren” barruan “irabazitako bataila” bat ere. “Denbora irabazteko” argudioa erabilita, Syrizaren gobernuak uko egin zion Salonicako programari (honekin mobilizatu ziren herritarrek eta irabazi zituen hauteskundeak) eta prest agertu zen zorra ordaintzen joateko, honela hartzeko

dunak lasaituko zituenaren espezialitateekin. Baina errealitateak berriro erakutsi du ahuleziak eraso gehiago ekartzen dituela.

Troikak neurri gogor berriak eskatzen jarraitu du: pentsioen murrizketa drastikoa, BEZaren igoera berria, pribatizazio gehiago, sektore publikoko soldaten murrizketa, beste lan erreforma bat, aurrekontuetatik 8.000 milioi euro murriztea, etab. Negoziaketetako puntu guztiak, baita Syrizaren gobernuak onartutakoak ere, herritarren gehiengoaren bizi baldintzak okertzeko izan dira. Hemen ez zegoen benetako negoziaketarik, baldintzarik gabe errenditzeko inposizioa baizik.

Troikak zorra berrestrukturatzea onartuko balu ere, funtsean neurriak norabide berean joango lirarteke: herri greziarrak krisia eta honen ondorioak ordaintzea. Baliabideek sektore finantzariora joaten jarraituko lukete, aurrekontuetako murrizketek eta eskubideen suntsiketek jarraituko egingo lukete eta epe motzean krisi kapitalistaren ondorioak areagotu egingo lirarteke (inbertsio eza, kapitalen ihesa, langabezia masiboa, soldata miserableak...). Eta hau zeren truke? Sei hilabete beranduago “negoziaketa” berri batera eta “erreskate” berri baten izenean beste murrizketa sorta batera itzultzearen truke. Eta beste behin, “erreskate” honekin irabazten aterako lirartekeen bakarrik banku europarrak izango lirarteke, bereziki alemaniarrak. Hauek dira akituta dagoen langile klasearen eta miseriara bota den biztanleriaren odol, izerdi eta malkoetatik ateratzen diren milaka milioi euro poltsikoratzen ari direnak. “Versa-

llesko Bakera” edo inperialismo frantziarrak herri alemaniarrari Lehen Mundu Gerraren ondoren inposatu-tako karga ekonomikoetara itzuli beharko ginateke antzeko zerbait ikusteko.

Samarasen eskuineko gobernupean egin zen zor greziarraren berrestrukturaketa bat, eta ordutik egotira soziala eta ekonomikoa ikaragarri okertu da. Zorra ordainezina den heinean, burgesiak badaki lehenago edo beranduago berrestrukturaketa berri bat egin beharko dela. Hala ere, kasu honetan ere Troikak argi eta garbi utzi nahi izan du hori nork erabakiko duen eta noiz eta nola egingo den. Burgesia europarraren helburua funtsean politikoa ere bada: Tsiprasen gobernu bere oinarri sozialarekin gatazkan sartzea bilatzen dute, pentsioena bezalako gai sentikorretan atzerakadak martxan jarrita (pentsioak dagoeneko %40 jaitsi dira eta milioi bat pertsona baino gehiago bizi da aiton-amonen pentsioari esker).

Testuinguru honetan, ekainaren 26ko gauean, ezohiko ministro kontseiluan, uztailaren 5erako erreferenduma deitzea onartu zuen gobernu greziarrak, une hartan zegoen Troikaren proposamena bozketara eramateko. Syriza ezekoa aldeko posizioa hartu zuen, proposamen horren aurka eginez. Ezezkoaren aldeko emaitza bikainek erakutsi zuten herri greziarraren borondatea Troikari eta burgesiari aurre egiteko.

Gobernu langile klasearen eta gazteriaren presioa jasaten ari da. Erreferendumaren deialdia ekarri zuen aste guzti horretan masa greziarrak kalera atera ziren Troikarekin hausteko eskatuz. Tsiprasen gobernu akordiora iritsi izan balitz, Syriza barnean errebolta garrantzitsua lehertuko zitzatekeen, eta gobernu berriz krisian sartu. Murrizketa horiek aurrera ateratzeko Tsiprasek beharrezkoa izango zukeen murrizketen aldeko alderdien (Demokrazia Berria, Pasok eta To Potami) babes parlamentarioa, eta hau zalantzarik gabe bere hondoratze politikoa izango zitzatekeen.



**BEHARREZKOA DA
LANGILEEK BOTEREA
HARTZEA! BEHARREZKOA DA
SYRIZAK PROGRAMA
SOZIALISTA APLIKATZEA!**

Gobernuak bere oinarri soziala indartu nahi badu, neurri eraginkorrak eta sendoak hartu behar ditu, langile klasearen ekintza masibo eta antolatuan oinarrituz. Tsiprasen gobernuak gauza asko ditu bere alde, baina horiek aprobetxatzeko alde batera utzi behar ditu Troikarekin akordiora iristeko esperantzak. Beharrezkoa da Syriza alternatiba bat altxatzea NDFk, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Europako Batasunak (EB) Greziako herriari inposatu nahi dioten kaosaren eta hondamendiaren aurka. Eta horretarako ez dago hirugarren biderik, bide bakarra dago: beharrezkoa da benetako programa sozialista aplikatzea langile klaseak botere politikoko eta ekonomikoko palanken kontrol zuzena hartzeko.

Mobilizatuta dagoen eta bukararaino borrokatzeko prest dagoen langile klasean oinarrituta, Syriza-ren gobernuak arrakasta izan dezake. Modu honetan, eraldaketa sozialistaren aldeko programan konfiantza erakutsita, pobretu diren kapertaintetako sektore zabalen babes mantendu eta herritarrei sakrifizio handienak eskatu ahal izango litzaizkieke kapitalisten erasoaldiari aurre egiteko. Grezian jokoan dagoena boterea lortzeko borroka da, gizartea nork kontrolatzen duen: burgesiak edo langileek. EBtik eta eu-

rotik kanpora ere, gobernu greziarrak kapitalismoaren logika basatiarekin ez badu hausten, mundu merkatuaren eta botere finantzarioaren menpe jarraituko luke, eta honek zehaztuko luke bere politika ekonomiko eta soziala. Arrazoi hauengatik, hil ala biziko kontua da neurri iraultzaileak hartzea:

1. Kapitalisten sabotajearen, hertsura planen eta murrizketa sozialen aurka, ekonomia biztanleriaren gehiengoaren kontrolpe demokratikoan jarri. Bankaren, enpresa handien eta monopolio estrategikoen (argia, ura, telekomunikabideak, aseguruak...) desjabetzea langileen kontrolpe demokratikoan. Dauden errekurtsioak mobilizatu langabezia borrokatzeko eta familia guztien bizi duina bermatzeko.

2. Ezezkoa NDFren, EBZren eta EBren plan guztiei. Zorra ordaintzeari ez! Herri greziarrak ez dio ezer zor banka internazionalari. Guztiz aurkakoa! Kapital internazionalak Grezian dauzkan baliabide guztien konfiskazioa. Herrialdeko kapitalista handi guztien ondareen eta aktibo finantzarioen konfiskazioa indemnaziaziorik gabe. Hau da modu bakarra kapitalen ihesa saihesteko.

3. Pribatizatutako enpresa publiko eta sektore guztien bernazionalizazioa. Soldaten eta pentsioen igoera drastikoa eta osasun publikoaren, hezkuntza publikoaren eta zerbitzu sozial guztien defentsa.

4. Langabezia borrokatu. Banka eta monopolioen desjabetzeari esker,

HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZEN DU

Burgesia europarrak Syriza zapaldu eta Grezia hondoratu nahi ditu

AURREKO ORRIALDEAN HASTEN DA azpiegitura sozialak, ikastetxeak, institutuak, ospitaleak... sortzeko ibertsio plan erraldoia langabetuei eta gazteriarri lana emanez.

5. Kapitalistek ekoizpenari egiten dioten sabotajearen aurka: langile kontrola enpresa guztietan eta kaleratzeak edo itxierak planteatzen dituzten enpresen nazionalizazioa.

6. Estatuaren eta ekonomiaren palanka guztiak benetan gehiengorearen zerbitzura egoteko eta mehatxu faxistari aurre egiteko: borroka komiteen sorrera fabrika, ikastetxe eta auzo guztietan, partehartze demokratikoan oinarrituta eta herrialde osoan bateratuta. Sabotaje arriskutsuen kasuan, deialdia lan-

gile klaseari fabrikak eta Estatuak gune nagusiak okupatzeko. Soldaduen komiteen sorrera bultzatu kuartel guztietan, plan kolpistak neutralizatzeko.

7. Troikaren Europaren aurka, EBrekin hautsi eta ez negoziatu. Europako Federazio Sozialistaren bandera altxa, herri greziarraren aurkako burgesiaren erasoei aurre egiteko dei eginez langile klase europear osoaren elkartasun internazionalistari.

Zalantzarik gabe, bide hau hartuta ere garaipena ez dago bermatuta, baina bide hau da garaipena lortzeko aukera bakarra. Porrotik mingarriena, zorigaiztokoena eta lotsagarriena klase arteko indar korre-

lazioei buruzko analisi faltsuetatik etortzen dena da, faktore iraultzaileei garrantzia kentzen diena eta etsaiaren indarrak idealizatzen dituen. Syrizako, KKEko (Greziako Alderdi Komunista) eta langile klaseko iraultzaile greziarrek eskubidea eta betebeharra dute une garrantzitsu hauetan historiari aurrez aurre begiratzeko eta aurrera pauso erabakigarriak emateko. Greziako iraultza sozialistaren garaipenak efektu elektrikoa izango luke kontinente osoko langile eta zapalduengan eta bidea irekiko lioke iraultza europarrari, 1917ko urriko Errusiako iraultzatik ikusi ez den bezala. Hau da une hauetan Grezian dagoen errealitatea eta erronka.

PPren eta Estatu aparatuaren erantzuna mobilizazio sozialaren gorakadaren aurrean

KONTRAPORTADAN HASTEN DA yihadistaren aitzakian PP eta PSOEek egin duten akordioa eskubide demokratikoen aurkako murritzeta zuzenak dira.

Mozal Legearekin Alderdi Popularrak atzerritarren legea aldatu eta Ceuta eta Melilla etorkinak berehala itzultzea legalizatzeaz gain, hauen eskubideak erabat urratu dituzte; bestalde, 600.000 euro arteko isunak ezartzen ditu orain arte legezkoak izan diren hainbat ekintzentzat. PPK azken urteetako mobilizazioak aztertu eta behar duten neurriko lege bat diseinatu dute ilegalak eta zigorgarriak izan daitezkeen.

Zigor oso larrien artean daude (30.001etik 600.000 euro bitarteko isunak) "ohartarazi gabeko edo debekatutako bilera edo manifestazioetan parte hartzea, zentral nuklear edo aireportuak bezalako

azpiegitura kritikoen tratamendua duten eraikinetan sartzea eta hauen funtzionamendua oztopatzea" (gogora dezagun, esaterako, 2006ko El Prat aireportuko lurreko pertsonalak egin zuen greba). Larrien artean (601etik 30.000 eurora) ekitaldi publikoetan ordena asaldatzea dago, nahiz eta delitua ez izan. "Aktibitatearik ez izan arren, Kongresua, Senatua, Parlamentu Autonomikoak etab. bezalako Estatuaren instituzioetan aurrez jakinarazi gabeko protestetan hiritarren segurtasuna larriki asaldatzea" esaldiarekin "Kongresua Inguratu" eta era guztietako bat bateko mobilizazioak zigortzen dira; "autoritatea oztopatzea bere erabaki administratibo edo judizialen ekintzan" esatean etxe kaleratzeen aurkako protestak bezalakoak; "agenteen baimendu gabeko irudi, datu pertso-

nal edo profesionalak erabiltzea" dioenean, indar errepresiboei inpunitate handiagoa ematen zaie manifestari eta aktibisten aurkako biolentzia erabiltzeko. Azkenik, arinen artean (100etik 600 eurora) "edozein espazio publiko edo pribaturen okupazioa" dago, "segurtasun indarretako agenteei errespetu edo kontsiderazio falta beraien betebeharreran" edo "eraikinetan edo monumentuak eskaltzea", hauek ekintza nahiko arruntak dira protesta ekologistetan.

Zigor kodearen erreformarekin, orain arte faltak izan direnetatik bi herenak delitu bihurtzen dira, eta bizi osoko zigorra "kartzeleratze iraunkor berraztergarria" eufemismopean sartzen dute. Sindikatuek "garrantzi handirik gabeko ekintza sindikalak kriminalizatzeko atea irekita uzten duela" salatu dute. Terrorismoaren

aurkako borrokaren aitzakiarekin, PPK, PSOEko zuzendaritzaren babesarekin, terrorismo yihadistaren aurkako legea onartu du eta terrorismo delituetan praktikan ia dena sartzen da, lan eta protesta sozialak barne, eta zigor handienak izan ditzakete.

ESTATU APARATU FRANKISTAREN IRAUPENA

1976an Manuel Fragak, orduan Arias Navarroren gobernuko lehendakariorde eta Gobernazioko ministro zenak, “kalea nirea da” erantzun zien ezkerreko sindikatu eta alderdiei Maiatzaren Leheneko manifestazioak debekatu zituztenez. 1976 eta 1982 urteen artean Polizia Armatuaren eta Guardia Zibilaren errepresio konbinatuak, eskuin muturreko taldeen ekin-tzekin 100 hildako baino gehiago utzi zituen. Ez Polizia Armatuan ezta Poliziaren Gorputz Gorenetan ez zen inoiz elementu frankista eta ultren depuraziorik egin. Guardia Zibilak orain arte bere izaera militarra mantendu du, eta justizian eta beste instantzia altu batzuetan frankistak egon dira erretiroa iritsi zaien arte.

Estatu aparatuan elementu hauek egoteak pisu handia izan zuen, batez ere, “demokrazia” urte batzuen ondoren, Felipe Gonzalezen gobernuak GAL eta gerra zikinarekin ETaren aurka garatu zituen estatu terrorismo eta biolentzian. Eskuin muturreko taldeen eta talde paramilitarren oinordekoek Trantsizio garaian ezkerreko aktibista politikoak hil eta torturatu zituzten Estatu aparatuen adostasun edo onarpenarekin. 1983tik 1987ra GALEk 27 pertsona hil zituen diru publikoarekin finantzatuta eta agintarien oniritziarekin. 1995ean GALen parte hartzeagatik hasieran inputatu eta ondoren errugabe utzi zuten Jose Antonio Saenz de Santa Maria teniente jeneralak



El Pais egunkarian ondokoa deklaratu zuen: “Terrorismoaren aurkako borrokan egin behar ez liratekeen gauza batzuk daude. Egiten badira ez dira esan behar. Esaten badira ukatu egin behar dira”. Horrela mintzo zen gizon hura 15 urterekin Falangeko gazte erakundean afiliatu zen, kolpe militarren ondoren bando frankistan borrokatu zuen, makien aurkako errepresioa koordinatu zuen, 1971an Guardia Zibilaren Estatu Nagusiko buru izendatu zuten, frankismoan hiltzera kondenatutako azken bost pertsonen hilketen antolatzaile izan zen, 1976an jeneral izendatu zuten, gero Polizia Nazionalaren zuzendari eta ondoren Guardia Zibilarena, 1983tik 1986ra PSOEren gobernuarekin; azkenik, terrorismoaren aurkako gobernuaren aholkulari izendatu zuten, eta 1996ra arte iraun zuen karguan. Eboluzio pertsonal hau diktaduratik “demokraziara” emandako eboluzio politikoaren adibide argigarria da, fartsa hutsa.

Ez da kasualitatea diktadura frankistan gizartearen aurka egindako krimenengatik inputatuta daudeneztat autoritate argentinarek eskaturiko estradizioa Ministroen Kontseiluak ukatu izana. Azken hamar urteetan tortura eta poliziaren tratu txarren aurkako 6.621 salaketa egin dira. Nazioarteko adituek adierazi dutenez, Estatu polizia-etxetan egin diren atxiloketez gain, salatutako tratu txar edo torturen %50 mugimendu sozialetako aktibisten aurka egin dira, eta %40 etorkinen aurka. Estatu frankistaren eta gaur egungo Estatuaren odolezko loturak eta lotura politikoak inoiz ez dira hautsi, haien oinordekoak dira biolentzia poliziala eta errepresio basatiena erabili, onartu eta babesten dutenak, eta garai haietatik ikasiz etorkizuneko borroka sozialetarako prestatzen ari dira. Baina hala ere, orain lehen bezala, ez isunek, ez karga polizialek, ez atxilo-tek, ez dute mobilizazioa gelditzea lortuko.

PPren eta Estatu aparatuen erantzuna mobilizazio sozialaren gorakadaren aurrean

Azken urteetan, eta bereziki M15aren eztanda ondoren, borroka sozialaren aurkako kriminalizazio kanpaina izugarria ikusi ahal izan dugu. Eskuin mediatikoa erabiliz, Alderdi Popularra mobilizazio esanguratsuenen eta horiek antolatzen dituzten arduradunen aurkako errepresioa justifikatuko duen giroa sortzen saiatzen da. Borroka soziala geldiarazteko saiakeren artean, pasa den martxoan lege errepresibo berriak onartu ziren murrizketa eta herstura planek sortu dituzten protestei aurre egiteko.

AITZOL ARRIBILAGA

Ez da taktika berria iritzi publikoaren aurrean herri-tarren protestak zikintzeko, polizia infiltratu eta liskarra sortzea, ondoren errepresioa justifikatzeko; baina azkenaldian metodo horrek izan duen gorakada lotsagarria izan da. Liskarrak sortu dituzten polizia infiltratuen gaia zabal dokumentatu da sare sozialetan argazki eta bideo bidez.

2012ko greba orokorrean Katalunian, jendeak manifestazioan infiltraturik zeuden Mossos d'Esquadra batzuk identifikatu eta bidali egin zituzten; argazkiak atera zizkieten luzatzeko porrekin eta sindikatuetakako pegatinek zeudela. Sevillako M15 mugimenduak Luis Garcia Torres famatu egin zuen, bere polizia kideek atzeman eta erreskatatu egin zuten "atxiloketa espres" baten bidez. 2014an M22ko Duintasun



Martxako antolatzaileek kontatu zuten lehen lerrotik poliziaren aurka hainbat objektu jaurti zituzten pertsonak ondoren atxiloketak egiten ikusi zituztela.

MURRIZKETAK ESKUBIDE DEMOKRATIKOETAN

Uztailaren 1ean indarrean sartu zen Hiritarren Segurtasunaren Legea edo "Mozal Legea", kode penalaren erreforma eta terrorismo

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniezaguz aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!
JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net**

Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Laguniezaguz sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.**

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista